

Proiektuari hasiera bat eman ahal izateko merkatu segmentazioa azaltzen hasi behar dugu. Honen barruan, ez gara segmentu bakar bakan batean zentratuko, baizik eta guztietara, hau da, familietara, nagusietara, koadriletara, etab.

Era honetan, zenbaitetara bideratuta egonda arrakasta izateko aukera gehiago izango ditugu. Baina ikastaroa egin eta parte hartu ahal izateko gutxienezko adin jakin bat beharrezkoa izango da, kasu honetan, 10 urtetik gora izan beharko duzu.

Gero, ikastetxeekin zenbait harreman izango ditugunez haien ikasleak irakasleekin joateko zenbait jarduera preparatuko ditugu. Hemen, oso parte garrantzitsua publizitatea izango da. Horren bidez, pertsona guztietara ailegatzea lortuko dugulako.

Izan ere, dibertigarria izatea bilatzen dugunez bezero minimo eta maximo bat jarriko dugu ikastaro bakoitzetik. Minimoa pertsona bat egotea izango da, badaudelako pertsonak bakarrik sukaldatzen ikastea bilatzen dutela eta maximoa 10/ 15 pertsona izango dira. Kasu honetan, zenbait lagun talde etor dadin bilatzen dugu baina lehen esan dugun moduan ikastolekin harremanak izango ditugunez haiei, 35 pertsonako maximoa ipiniko diegu. Klase bakoitzeko gutxi gorabeherako ikasle kopurua kontuan hartuta.